



Arartekoaren 2013ko martxoaren 4ko ebazpena. Honen bidez, ofiziozko bi espediente amaitzen dira, genero indarkeria jasaten zuten eta bikotekide ohiek bortizki erasota hil ziren bi emakumeren kasuan emandako polizia arretaren zioz abiarazitakoak.

### Aurrekariak eta gogoetak

1. Euskadin, hurrenez hurren 2010ean eta 2011n, bi emakume hil ziren, genero indarkeriaren biktima, bikotekide ohiek bortizki erasota, eta, horren ondorioz, Arartekoak ofiziozko esku-hartze bana abiarazi zuen, bi kasuetan zorigaitzoko amaieraren aurretik gertaturikoak argitzeko, kasu horietan egindako jarduketa publikoetan zein alderdi hobetu litezkeen detektatu eta etorkizunean antzeko emaitzarik izan ez dadin prebentzioa indartzeko aldera.
2. Bi kasuetan, laguntza eskatu genion Eusko Jaurlaritzako Herrizaingo Sailari, lehen eskutik jakiteko amaiera tragikoa gertatu aurretik instantzia eskudunek nola jardun duten.

Gure informazio eskabidean, Eusko Jaurlaritzari hainbat gogoeta helarazi genizkion ofiziozko gure jardunaren asmoa zein zen azaltzeko, eta nabarmendu genion genero indarkeria jasaten zuten emakumeentzako arretan hobetu litezkeen alderdiak azpimarratu nahi genituela batez ere, etorkizunean halako kasuetan prebentzioa areagotzeko neurriak aktibatu ahal izan zitezen.

3. Hildako emakumeekiko eta haien familiekiko isilpekotasun eta errespetuagatik, ez ditugu hemen azalduko erakunde honek aztertu dituen egintza zehatzak, baizik eta soil-soilik Eusko Jaurlaritzak bidalitako informazioa aztertu ondoren atera ditugun ondorio orokorrak agertuko ditugu, uste baitugu baliagarri gerta daitezkeela etorkizunean genero indarkeria jasaten duten emakumeei arreta emateko daukagun sistema indartzeko.
4. Ofiziozko espediente horien esparruan Herrizaingo Sailak eman digun informazioak badakar argirik genero indarkeria jasaten duten emakumeentzako laguntza eta esku-hartze publikoa hobetzeko moduaren inguruan, aztertutako kasuetan izan den zorigaitzoko emaitza berriro gerta ez dadin. Testuinguru horretan, erakunde honek bere garaian jadanik helarazi zizkion aipaturiko Sailari halako kasuen gaineko hainbat ondorio orokor, *Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktima diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordean* parte hartzeak eskaintzen digun erakunde esparruan. Emakunde buru duen foro horrek, bertan ordezkaturiko erakunde publiko guztiak aurrean direla, bide eman digu gure iritzia zuzenean Herrizaingo Saileko ordezkariekin kontrastatzeko, orduan Genero Indarkeriaren Biktimak Artatzeko Zuzendaritzaren bitartez. Eusko Legebiltzarrari egin genizkion 2011 eta 2012. urteetako ohiko txostenetan ere oro har aipatu genuen jarduera hori, eta Arartekoak ofizioz hasitako



espedienteen ondorio gisa Erakunde arteko II. Akordioaren Jarraipen Batzordeari helarazi dizkion gogoeten laburpen bat ere badakar.

\* \* \*

Aztertutako gertaerak aintzat hartuta eta Euskadin genero indarkeriaren ondorioz hildako bi emakumeen harira erakunde honek ofizioz hasitako bi espedienteetan egindako gogoetak kontuan hartuta, Arartekoak ondorio hauek atera ditu:

### Ondorioak

1. Arartekoak uste du Ertzaintzak, kasu hauetan, arlo honetan ezarritako jarduketa-protokoloen arabera jardun duela, baina, hala eta guztiz ere, uste du abagune egokia izan litekeela hobetu litezkeen arloak identifikatzen saiatzeko, horretarako xeheki aztertuz —protokoloak formalki betetzeaz harago— hizpide dugun kasu honetan bezala amaiera dramatikoak duten beste kasu batzuetan egindako jarduketa publikoak; izan ere, jarduketa horien ebaluazioak izan litezkeen ahuleziak zuzentzeko aukera eman diezaguke etorkizunean genero indarkeriaren kasuetan egiten diren esku-hartze publikoetan.
2. Kasu hauek izan duten zorigaitzoko amaiera ikusirik, baieztatu dezakegu arriskuaren balorazioak eta biktimak babesteko aktibatu ziren neurriak ez zirela izan nahikoak emakume horien heriotza eragin zuen eraso bortitza eta emakume horietako batekin zihoan lagunak jasandako lesio larriak eraginkortasunez prebenitzeko. Horregatik, garrantzizkotzat jotzen dugu sistema hori berrikustea (hala arriskuaren balorazioari dagokiona nola arrisku-mailaren araberrako babes-neurriei dagokiena), kasu hauetan eta beste batzuetan lorturiko esperientzia kontuan hartuta, aipaturiko tresna horiek modu eraginkorrean hobetzeko etorkizunean izan litezkeen kasuetarako.
3. Bestalde, uste dugu ezar litezkeela ikertzeko beste bide batzuk ere, ertzainek erasotzaileari eta biktimari egiten dieten elkarrizketaz harago, portaera bortitzak eta erasotzailearen asmoak fidagarritasun handiagoarekin aurreikusi ahal izateko. Hain zuzen ere, tresna psikologiko aurreratuenei buruz ari gara, eta, hala badagokio, arlo horretako adituengana jotzeaz, teknika espezifikoak aplikatzen baitituzte aurreikus litezkeen erasotzailearen portaerak egiazkotasun handiagoz ezagutzeko, eta, modu horretara, hobetu egiten baitira arriskua baloratzeko parametroak eta beharrezko babes-neurrien aurreikuspena.
4. Uste dugu, orobat, arrisku handiko edo oso handiko (berezia) egoera bat detektatzen den kasuetan, lan eraginkorragoa egin behar dela biktima kontzientziatzeko haren onspenarekin beharrezko babes-neurriak ezartzeko orduan, eta, beharrezkoa izanez gero, genero indarkeria jasaten duten emakumeei arreta emateko beste zerbitzu publiko batzuen babesa eta lankidetzak eskatu behar dela, modu horretara biktimari ematen zaion komunitate babesa indartzeko. Alderdi hori funtsezkoa da genero indarkeria



jasaten duten emakumeei babesa emateko, eta, zalantzarik gabe, dagozkion erakundeek gehiago ustiatu behar lukete.

5. Genero indarkeria jasaten duten biktimei arreta emateko erakunde eskudunek jakin egin behar dute zein diren portaera eredu komunak indarkeria matxistaren ziklo prototipikoaren faseetan, eta biktima ohartarazi eta kontzientziatu behar dute oso zirkulu txarra sortzen dela erasotzailea ustez barkatuta, itxuraz damutu egin delako eta harekin adiskidetu nahi duelako; izan ere, jarrera horrek, eskuarki, areagotu egiten du emakumearentzako arriskua, bultzaturik sentitzen baita salaketa kentzera edo bere burua defendatzeko jardunetan atzera egitera, erasotzaileak erasotzat har ditzakeela eta. Fase horren ondoren, eskuarki, indarkeriaren beste agerraldi bat izaten da, eta orduan emakumea jadanik ez da egoten erakunde sistemak babestua, bere borondatez babes horri uko egin dionez gero. Eredu hori —eta horren ondorio dramatikoak— aski ezaguna da genero indarkeria jasaten duten emakumeekin nola edo hala jarduten duten edo emakume horiei arreta edo zerbitzu ematen dieten pertsona, agente instituzional zein pribatu guztientzat, eta, ondorioz, behar bezala prebenitu behar da.

Prebentzio lan hori egiteko, biktimari komunitate babesa eta laguntza eman diezaioketen beste zerbitzu batzuekiko koordinazioa aktibatu daiteke, eta, hala badagokio, babesa emateko neurri judizial eta polizialak mantendu —batez ere erasotzailea kontrolatzekoak direnak—, nahiz eta salaketa kendu edo babes agindua kentzeko eskatu, baldin eta irizten bazaio oraindik ere badela arriskua edo, are, defentsarako ekintza juridikoak kendu izana biktimarentzako arriskua handitu izanaren zantzu larritzat hartu eta ulertzen bada.

6. Ohartzen gara polizia neurriekin ez direla amaitzen genero indarkeria jasaten duten emakumeen arrisku egoerak, eta neurri horiek bakarrik ezin dietela aurre egin halako egoerei. Alde horretatik, nabarmendu behar dugu justizia sistema funtsezkoa dela bereziki genero indarkeria jasaten duten emakumeei benetako babesa emateko; izan ere, epaileak ezar ditzake kautelazko neurriak ustezko erasotzaileak emakumearen aurka egin ditzakeen ekintza bortitzak prebenitzeko, *Genero indarkeriaren aurka oso-osoko babesa emateko neurriei buruzko abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoak* ematen duen zentzu zabalean. Testuinguru horretan, oso garrantzizkotzat jotzen dugu babes aginduak eraginkor egingo dituzten neurriak lortzeko bidean aurrera egitea beharrezko lankidetzak judizial-polizialaren bitartez, bai eta erasotzaileak zuzenean kontrolatuz ere, kontrol erasotzailearen zaintzak eta jarraipenak barne direla.
7. Erakunde honek uste du aztertutako kasuek agerian jartzen dutela zein garrantzitsua den koordinazio judizial-poliziala zentzu zabalean areagotzeko lan egitea. Horiek horrela, gure iritziz, beharrezkoa da, orobat, jarraipena egiteko eta kasu konkretuetan arlo judizial-polizialak koordinaturik jarduteko protokolo berriak sortzea edo lehendik daudenak areagotzea, kontuan hartuta biktimen babesa eskumen hertsiki polizialaren esparruaz harago doala.





8. Beste ildo batean, bidezkoa da, gainera, koordinaziorako lurralde-organoen alde egitea, kasu jakin batzuen jarraipena egin dezaten, genero indarkerian esku hartzeko eskumena duten erakunde guztiek parte hartuta (polizia arreta, justizia sistema, gizarte zerbitzuak, osasun zerbitzuak eta genero indarkeria jasaten duten biktimei arreta emateko zerbitzuak). Gure iritziz, *Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktime diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordearen* barruan jorratu eta sustatu behar da gai hori. Izan ere, batzorde horrek foro egokia eskaintzen du erakunde harremanak hobetzeko eran sakontzeko eta harreman horiek egituratzeko modua zehaztuko duten proposamenak egiteko.
9. Azkenik, uste dugu aurreiritzirik gabe, modu irekian eta zintzoki berrikusi eta ebaluatu behar direla emaitza larriak izan dituzten edo heriotzarekin amaitu diren genero indarkeriaren kasuak —nola baitira ebazpen honetan aztergai ditugunak— tratatzeko emandako pauso guztiak. Kasu horien a posteriori ebaluazioa, biktimari arreta motaren bat eman dioten erakunde guztien parte-hartzearekin eginikoa akatsak hautemateko, abagune egokia izan daiteke, eta hobetzeko aukera ezin hobe, arbuiatu ezin duguna. Uste dugu halako ebaluazioak sustatzeko esparru egokia, zalantzarik gabe, *Etxeko tratu txar eta sexu erasoen biktime diren emakumeei eskaintzen zaien laguntza hobetzeko Erakunde arteko Akordioaren Jarraipen Batzordea* dela; izan ere, batzorde hori, Emakundeko zuzendaria buru duela, foro ezin hobe da berrikuspen eta ebaluazio prozedura horiek abian jar daitezen sustatzeko eta bultzatzeko.

